

**AITZINA**

Editora: Fermin Monariz. Koordinatzailea: Mariasun Monzón. Aholkularia: Iñaki Egaña. Diseñatzailea: Juan Luis Napal. Helbidea: Rincón de la Aduana, 18 behe. 31001 Iruñea. Tfnoa. 948-21 99 99. Faxa: 948-212329. E-mail: aitzina@nafarkobi.net

**NORANTZA**

**Alfredo GOMEZ KORTAZAR**

Euskal NORTASUNA Elkarteko KIDEA

«Euskal nortasuna adieraztea da agiriaren helburua»

Euskal nortasuna adierazteko traba ugari dugu Euskal Herrian. Horietarik garrantzitsuenetakoak Documento Nacional de Identidad eta Cart D'identite delakoak dira. Euskal Nortasun Agiria eraikuntza nazionalen pausu txiki bat bezala agertzen da.

eman nahi diotena da. Agiria erabiltzerakoan ez ditugu egun ditugun muga legalak kontutan hartu behar eta berai erabiltzeko eskubidea askatasun osoz aldarrikatu behar dugu. Gure mezuza euskal herritar guztiari zuzentzen diogu. Dena den, badira bi kolektibo guretzat garrantzitsuak direnak. Batetik, euskaldunak eta euskalzaletak egongo lirateke. Orain arte euren izen-abizenek euskarazko grafian agertu ahal izateko oztopo ugari izan dituen jendea egongo litzake. Bestetik, Euskal Herrian gero eta gehiago dira kanpotik etorri-

takoak eta horietako askok dagoneko agiria egin dute. Orain arte 3.000 agiri inguru daude eginak.

**Zer egin behar da agiria eskuratzeko?**

Agiria eskuratzearen prozedura oso erraza da. Datu pertsonalak jasotzen dituen orri bat bete behar da eta 1.000 pezeta ordaindu. Euskararen aldeko jai nagusietan egoten gara eta baita beste jaialdi batzuetan ere. Esaterako, Durangoko azokan ere izango gara. Bestalde, udaletxeekin lanean hasi gara. Bermeoko udala dugu adibide eta berauk, udalean egin beharreko tramite guztiak agiri honekin egitea onartu du. Asmo hau Euskal Herri osora zabaltzea dugu helburua.

**Desobediendiaren bidetik jarraitzeko asmoa al duzue?**

Agiriaren ideiarekin hasi ginen ez ginen desobediendiaren bidetik planteatu baina erabilpenen bitartez, desobediencia maila bat egiten dugula ikusi dugu. Agiri honen erabilpenarekin gure herria, hainbat alorretan eta lekutan, herri bezala onartua eta ezagutua izatea lor dezakegu. Hori dela eta, jauzi kualitatiboak emateko asmoa dugu: famili liburua, besteak beste. Madrilgo prentsa agiri honen aurka hasi da jada eta horren aurrean zera esan nahi dugu: euskaldunok eskubide osoa dugula gure agiriak eta nahi ditugun bitartekoak sortu eta erabiltzeko. Zentzu horretan, Euskal Nortasun Agiria egitera animatu nahi dugu jendea, pentsatzen dugun baino balio handiagoa baitu.



Mosika Dri Valli

**Zein da agiriari duen balioa?**

Agiriak duen balioa euskal herritarrek

**AMAI MUNDIÑANO**

**Zein helbururekin sortzen da elkarte eta agiriaren ideia bera?**

Euskal nortasun agiria sortzeko ideia duela urte pare bat sortu zen Bizkaia aldean. Euskal herritartasuna adierazteko unean hutsuneak zeudela konturatu ginen. Frantziar eta espainiar agiriak erabiltzera behartuta sentitzen ginen kasu askotan, guretzat arrotzak eta hizkuntza arrotzean eginak zeuden agiriak, alegia. Horren aurrean, euskal herritartasuna adierazteko lukeen agiri baten beharra ikusi genuen. Ideia hau aurrera eramateko garaian, tresna gisa elkarre bat eratzea ezinbestekotzat jo genuen.

**Zer nolako hedapena dauka elkarteak egun?**

Elkartearen gunea Bizkaian badago ere, Euskal Herri mailako hedapena dauka. Horretaz gain, gainera, Euskal Herriatik kanpo dauden euskal herritarrak biltzeko joera eta nahia dugu. Hau da, euskal diaspora edota Euskal Herriatik, arrazoi ezberdinak direla eta, alde egitera behartuta egon diren euskaldunak biltzeko helburua dugu.



Txillarredgi

**Gogoeta**

Lerro hauek idazten ditudan egunean (Abenduaren lehenean, alegia) su-etenearen etendura gauzatu gabe dago oraindik. Baina argitaratu orduko amaizta izango da tarte hori.

Hitz batez, ezinezkoa zait gaur egun hauetako gertakari nagusia izan denaz mintzatea. Eta gogoeta apur bat egiteko baliatuko dut asteroko aukera hau. Eta irakurleari ere gogoeta bide bat proposatuko diot. Berriki kaleratu den "Magazine Littéraire" hila-betekariaren azkeneko alea hausnartzea (380. zenbakia, 1999ko Urtikoa): "Le Renouveau de la Philosophie Politique".

Mende honetan nagusi gertatu diren pentsatzaileak aztertzen dira: Weber, Sartre, Althusser, Hannah Arendt («*glotre posthume*»), Foucault, Habermas, Furet, Castoriadis, are bizirik dauden Ricoeur, Lefort, Taylor... Ale aberatsa, benetan. Eta politologo ez garen guztiok, oso lagunari.

Oro har, zer gailentzen? Sujeto abstracto askatzeotan eraiki diren filosofiek eta sistemek, porrot egin dutela, eta badinidiela orain «*justice ethno-culturelle*» bataiatzen dutenaren ordura etorri dela.

Gure garaian modan egon zen «*kultur identitateaz*» barre egitea.

Orain, aldiz, artikulua bilduma honen irakurketaz ondoriozta daitekeen. Kultur Komunitatei aitortzen zaie garrantzia.

Zertan datzan identitate hori? Hona hitzez hitz: «*Les liens pré-rationnels, les traditions, l'histoire partagée... tout ce qui différencie chaque communauté, des autres communautés issues d'autres histoires et définies par d'autres repères*» ...

Berriro ere nazioasuna datorriku indarrean. Eta denaren bilduma gisa galdera hau aurkitzen dugu: «*un individu est-il libre si la minorité culturelle à laquelle il appartient est opprimée par une culture dominante?*».

Etenune-ordu garrantzitsu hauetan, oso galdera aproposa Euskal Herriko egoeraz gogoeta apur bat egiteko.

**Aitzindariak**

**JULIA FERNANDEZ**  
1898-19XX



MARIA MONTESSORIEN PEDAGOGIA IRABILTZAILEA IKERTU TA SUSTATU ZUEN TRUÑEKO SAN FRANCISCO ESKOLETAN...



«Emakumeak ez dagokio ezkontza baten zain egotea. Emakumeak lana eskuratu bear du, eta ez edozein eratarira... gauza bera ezkontzari begira, dizona bezain prestatua delako edozein ikasketa burutzeko, eta independentzia ekonomikoa izan dezan, bearezkoa da ezkontzaz baliatzea...» 1 9 2 3

EMAKUME ABERTZALE BATZA-KO BURUZAGIA, ETA ELEDUNA EAJKO BILTZAR NAGUSIETAN...



MILITARREK PURGATUA 1936 AN, MAISTRA KARGOA KENDU ZIOTEN, ETA HAREN LANA EGUNDAINO ISILARAZI.

